

Ongilearen sariya

QARITAONANDIA'lar BITOR' apstizak

BAITZAN

BI ATAL'DUN ANTZERKIA

(Ezberber beren gogofia.)



1922

ENEXO DELNATEN IIAKOLA. — Gernat, 28

DONOSTIA

Ongilearen sariya

GARITAONANDIA'tar BITOŘ apaizak

IDATZITAKO

BI ATALDUN ANTZERKIA

(Edespen baten gogañiz.)

1922

ENEKO DEUNAREN IRAĀKOLA. — GARIBAI, 28

DONOSTIA

*Gotzai-baimenaz
ta
Euskaltzaindiaren oniritziaz

Jabeduna da*

*ZATARAIN'dar AMBORTSI
euskaltzale asko' ta gogatsuari.
maitasun-agerkaiz
eskeintzen dio idazti au*

EGÍLEAK

BANAKETA

ANTZEZNOTIÑAK

INES

JOXEPA

KARMELE

IXIDOR

IMANOL (Ines'en aita).

APAIZ-JAUNA

SENDAGÍLEA

EÑAMUN (Ixidoñ'en aita).

MORÓIA

LENENGO ATALA

AGERTOKIAN. — *Gela-nagusi eder egoki bat; atzean ta bi aldetan ateak: Egilearen ezker-aldeko atea izango da Imanol'en logelakoa.*

LENENGO AGEĀALDIA

Ines ta Joxepa.

- INES *(Etixerako janzki apaiñaz; exerita, nekatuta bezela.)* ¡Ai au lana!
- JOXEPA Ez dezu bañan oñenbesteraño estutu beař: ¡Geyegi egiten dezu!
- INES Ez dago geyegirik. Aita da, eta bere osasun-alde al-detan guzia egitera beařtua nago.
- JOXEPA Bai... oñela da: bañan, berenganako ařdurak zerori gaixotu beař zaitu.
- INES Poz-pozik ařtuko nituzke gaixotasunak, nere aitatxo sendatzeařen.
- JOXEPA Sinisten det. ¡Aingerutxo bat zera zu!
- INES Ez dago aingeru izan beařik. Alaba izatea naikoa da, nere gogo ta al guziak aitaren alde jařtzeko.
- JOXEPA ¡Gaxoa!
- INES ¡Gaxoa, bai, gaxoa! Egunetik-egunera indařgetzen ari da, ta ez dakit nola aterako dan eritasun onetatik.
- JOXEPA ¿Nořk daki? Sendagiñlea laisteř etořiko da, ta esango digu zeř deizkion.
- INES Sendagiñleak esan beařik ez det. *(Zintzaři deya.)*
- JOXEPA Bera ote da? *(Joaten da atea irikitzera.)*
- INES İlun ta atsekabez ařkitzen da gauř nere aita!... Zerbaitek ařduratzen du!... ¿Zeř ote da?... Ez da ba izango nere eřuz!
- JOXEPA *(Atetik.)* Ixidof jauna, ta bere izeba.
- INES Sařtu ditezela. *(Jeikitzen da.)*

BIGAŘEN AGEŘALDIA

Lengoak, K rmele ta Ixidoř.

- K RMELE (Atetik.)  Bada baimenik?
INES Auřera. (Joaten da Joxepa.)
K RMELE-IXIDOR Ařatsalde on.
INES Baita zueri ere.
IXIDOR  Zer diozu nere amesgai maiten ořek? (Laztanki ta maitekoř.)
INES Ondo,  ta zu?
IXIDOR Txit ondo.
INES Alaitzen naiz.
IXIDOR (K rmele auřkeztuz.) Nere izeba.....
INES Atsegin zait ezagutzea.
K RMELE Eskeřik asko. Sařitan itz egin degu zutaz, bařan, gauř arte ez det izan zu ikusteko zoririk.
INES Ez da eřez ni etxetik kanpora ikustea; bada aspaldi ontan ez naiz ateratzen eleizara baizik.
IXIDOR Bai: neke asko daramazu aldi ontan, gaxu ořek.
INES Ta... onela geranian, pozik.
IXIDOR Ta,  nola ařkitzen da aita?
INES Exeri zaitzete. (Exeřtzen dira.) Ba, aita gaxoa... gaizki ařkitzen da.
K RMELE  Ain gaizki?
INES Bai anderea. Jeikitzen da, bařan geroago ta indař gutxiago du.
IXIDOR Ařisko aundikoa da, izan, biotzeko mina, bařan geldiro-geldiro gogořtuko da.
INES Obe litzake. Ta zuk;  ba-aldezu aitaren beři?
IXIDOR Gauř goizean ařtu det idazki bat.
INES Ta  zer dio?
IXIDOR Atsegiņez irakuři dituala izebak bialdu dizkion zutazko beřiak, ta ořela izanik ez degula eragozpenik izango.
INES Alaitzen naiz: ta (Karmele'ri) zuri eskeřak.
K RMELE Ez dezu eskeřik eman beařik. Agirian daude zure ontasun ta izakera goragařiak.
IXIDOR Bere ařpegiari begiratzea baņo besterik ez dago.
INES Zuk esateko ez da asko (Iři-pařez.)

IXIDORÉ Ez da asko, ez: nere mingaÑak esan ditezken onespén guziak... ufi gelditzen dira zure izakeraren aúfean.

INES Loretegiaren batetik zatoz, noski.

IXIDORÉ Bai, ta lore gabe etofi beaf zuri egokitzen zaizun likuÑtadunik arkitu ez detalako.

INES Lotsatu beaf nazu, Ixidoré.

IXIDORÉ (*Karñmeleri.*) ¿Ez al da egiya, izeba?

KARÑMELE Bai; ala da: ta zuen alkarÑganako maitasunak asko postutzen nau.

INES EskarÑkasko. Ta (*Ixidoré'i*) ¿LaisteÑ biuÑtuko al-da aita?

IXIDORÉ Nik uste det ílebete baÑo len etoÑiko dala. Sei ílebete dira etxetik atera zala, ta orain zoÑtzi egun eldu zan Amerikatik Londresera.

INES Badet ezagutzeko gogua; baÑan, bíduÑ naiz nere aita ezagutzeko astirik izango ez ote duen.

KARÑMELE ¿ZeÑ bada?

INES Gaizki arkitzen da, ainbeste egunetan bizi izateko.

IXIDORÉ ¡Ixilik zaude!

INES Bera ere bíduÑ da: bada, beti ari da esaten, bera íl baÑo len ezkondu beaf nukela, umezuÑtz eta bakarÑik gelditu ez nadin.

IXIDORÉ Ba, oÑetaz ez du zure aítak buru-aútsi bearÑik. Zu etzera íñolako z bakarÑik geldituko.

INES EskeÑik asko.

IXIDORÉ ¡Esatea ere!

KARÑMELE JakiÑa da, Ines: Gu eri ontan arkitzen geran arÑean etzera laguntza gabe geldituko: ta emendik auÑera, etxea arÑtu degun ezkeru, emen izango gera geyenean.

INES EskarÑtzen zaituztet.

JOXEPA (*Atea irikiz.*) Sendagílea jauna.

INES (*Karñmele ta Ixidoré'i.*) Azketsi: (*jeikitzen da.*)

IRUGARÉN AGERÁLDIA

Lengoak eta Sendagílea.

SENDAGÍLEA (*SarÑtzen da. Joxepak atea irikiz.*) ArÑtsalde on.
KARM.-IXID. ArÑtsalde on. (*Jeikitzen dira.*)

INES (Sendagileari.) Baita zuri ere.
SENDAGÍLEA ¿Da; zeñ dio aitak?
INES Nere ustez, berdiñ xamañ.
SENDAGÍLEA Ikusi zagun. (*Kañmele ta Ixidoñ'i.*) Zuen baimenaz.
IXIDOR Zuregan dezu.
INES (*Kañmele ta Ixidoñ'i.*) Bereala naiz zuekin.
KAÑMELE Ongi da. (*Joaten dira Sendagílea ta Ines.*)
IXIDOR ¿Zeñ deizkiozu?
KAÑMELE Andere egoki ta itxurazkoa benetan.
IXIDOR ¡Óřela uste det!
KAÑMELE Gañera, alaba bakaña: ta bere dirutza ta ondasunak ez dira atzean uztekoak izango.
IXIDOR (*Aola eman gabe.*) Poliki izan beañ du; bañan ori...
KAÑMELE ¡Ze poliki!... Askok diotenez.
IXIDOR Batere izan ez ta ere, naikoa ondasun da bera.
KAÑMELE ¡Óřatiokan!
IXIDOR Bai, bai:... nere alde... (*Itzultzen da Ines.*)
INES Azketsi.
IXIDOR ¿Nola arkitzen da?
INES Gutxi gora-bera berdiñ.
KAÑMELE Banuan ezagutzeko gogua, bañan, ¿ez da orain izango berarekin itz egiteko garai egokia?
INES Ez, anderea: ta..... azketsi, bada sendagílearen agindua da.
KAÑMELE Ongi da: Beañ deguna, lenbaílen sendatzea da.
INES ¡Jaungoikoak nai dezala!
IXIDOR Zuk sendagíleekin egon beaña izango dezu, ta ez det eragozpenik jañtzerik nai. Bitarñtean, zeregintxo bat betetzera noa ta... gero itzuliko naiz. (*Jeikitzen dira.*)
INES Nai dezutenean.
KAÑMELE Atsegin zait ezagutzea, ta agindu uste-onez.
INES Berdin diotzut. Zuen agindupean naukazute.
KAÑMELE Eskeřik asko.
IXIDOR Geroarñte, Ines; ta ya, itzultzean, aita obeto arkitzen detan.
INES Jainkoak nai dezala.
KAÑMELE Aguf.

INES Zoazte ongi. (*Joaten dira Kármela ta Ixidoř.*)
Mutil egoki ta eratsua da benetan Ixidoř. (*Ixil
aldia, oldozkoř*)... ¡Nola arkitu ote du aita
sendagileak! (*Joaten da gela-aldera, baña sarřu
baño len agertzen da Sendagilea.*) ¿Zer
deizkiozu?

SENDAGÍLEA Ez du aldaketarik egiten. Biozkadak berdin
arkitzen dira, ta ariskotik ez da ateratzen. Kontu
ibili beař dezute igitzen danean, batez ere
jeikitzean.

INES ¿Eta ongi arkituko al-da jeikita?

SENDAGÍLEA Bai, bai, Exeri-toki bigun ta eroso baten jaři
ezkero, obeki arkituko da, da lasayago artuko
du arnasa.

INES ¡Sendatuko ote da!

SENDAGÍLEA Ori... ez da eřez izango: bada biots ořek ez du
indarrik; ta... geyegi indarřatu, edo atsekaberen
bař artuz, beř-beřtan gelditzeko ariskuan
arkitzen da.

INES ¡Gaxua!

SENDAGÍLEA Bai, Ines, Sendagileok egia esatera beařtuak
gaude, gauza guziak beař dan bezela eratutzeko.

INES Uleřtzen det zer esan nai dezun.

SENDAGÍLEA Bai: ta egoki izango da, jeiki ta gero, berarekin
batean arkitzen zeranean, zerbait esatea.

INES Bai Jauna, bai: ez nuke nai nere eřuz, egin-beař
ori bete gabe uzterik.

SENDAGÍLEA Ondo egingo dezu. Ta orain banoa. Ílunabařean
itzuliko naiz, baña etoři beařa balitz deitu, nai
dezunean.

INES Eskerrik asko.

SENDAGÍLEA Geroařte.

INES Zoaz ondo. (*Badijoa sendagilea.*)

INES (*Bakařik: oldozkoř, exerita.*) ¡Aita gaxoa!.....
Gaizki arkitu izango du sendagileak!... ¿Esango
ote diot?... ¡Atsekaberik artuko ote du ori
esanez!... ¡Au lana!... ¡Atsekabea izango dala
beretzat kaltegařiena! ta ¿nola esango diot nik
aitořtzea egoki izango zayola..... atsekaberik
eman gabe?... Ez da eřez!..... bada, ori esanez,
gaizkiago arkitzen dala irudituko zayo. Baňan
esan egin beařko!..... Bere *anima* da lenbizi.....
ta ez nuke nai nere eřuz gaiztokian betiko
galdurik... miñez ta oňazez nere aitaxoren
gogoia arkitzerik!... Ez Jauna, ez:... nere aitaren

betiko zorion-ordez, poz pozik... biotz-biotzez eskeintzen dizut nere bizitza: ta Zugan nere ustea jañiz, banoa nere egin-beaia betetzera... ¡Nola esango ote diot!...

LAUGAÑEN AGEÑALDIA

Ines, Imanol ta Moñoia.

MORIOIA (Gelako atetik.) Ines.
INES (Izuturik.) ¿Zer da?
MORIOIA Zuk laguntzea nai du aitak.
INES (Gelara dijoala.) Bai, aitatxo, bai: atoz... (Ines ta Moñoia sartzen dira gelara, ta bereala ageñtzen dira, Imanol bien artean dakañtela.)
IMANOL (Indañ gutxi du, ta nekez ibiltzen da.) ¡Au lana!... Ez det indañik!...
INES Orain... orñdutxo betean jeikita egonez, atsedenduko zera.
IMANOL Exeri nazazute poliki. (Jañtzen dute exeritoki egoki batean.) (Moñoia ate nagusitik dijoa, eta gelditzen dira Imanol ta Ines alkañen ondoan exerita.)
INES ¿Ongi arñkitzen zera orñela?
IMANOL Ez da erñz ni ongi arñkitzea... Nereak egin du!...
INES Ez aitatxo!... Poliki-poliki sendatuko zera.
IMANOL Sendatu!... ¡ez!...
INES Ba... sendatzeko usterik ez badezu..... ¿ez deritzatzu ongi..... garaiz gogoratzea...?
IMANOL Zerñ, alaba, zerñ?
INES Ba... garaiz... gauzak beañ dan bezela... eraz jañtzea.
IMANOL ¿Zerñ gauza?...
INES Ba... badañkizu... bada-epñada...
IMANOL ¡A!... uleñtzen zaitut!... Ez det esan beañik.. mundu ontan utziko ditudan gauza guziak, zureak izango dira.

INES Bañan.... aitatxo!..... badira mundu ontan utziko ez dituzunak ere: zurekin batean eramango dituzunak: eta... ori ere: ondo litzake eraturtea.

IMANOL ¿Zer... alaba... zer?

INES Aitořtu, aitatxo!

IMANOL ¡A!... Ez, Ines, ez! (*Tamal.*)

INES (*Biotzez.*) ¿Zerřatik ez aita?

IMANOL Ez det nai... ez det nai... Naste aundia arřkitzen da nere buruan.

INES Naste guziak, aundienak izan da ere, bereala eraztutzen dira, gogo-onez arřtu ezkeru.

IMANOL Ez... ez det nai... zu gaizki uzterik.

INES ¡Ni gaizki utzi?

IMANOL Bai... gaizki, ezkondu gabe.....

INES Baliteke laister eskontzea ere: bada Ixidoř bere aldetik gerřtu dago.

IMANOL Ni... iř bařo len... bestela, ez dakit...

INES Dana-dala, etzait ajola ezeřatik ere, zure anima zeruratzen badet. Ori da bakař-bakařik bizitzako egipidez lořtu beař deguna. Beste gerřtakizun guziak utsak dira.

IMANOL (*Laztantazunez.*) ¡Alaba gaxoa!... Umezuřtz.. bakařik...

INES ¡Aitatxo!... Mundu ontako biziera, ez da egiazko bizitza: bizitzako bidea baizik. Bide au, zabala naiz estua, leguna naiz latza izan... berřdin da: beař deguna da, goiko bizitzara, egiazko bizitzara eldu, eta betiko atsedena iritxi.

IMANOL ¡Itz edeř ta poskařiak!. Bañan... berandu da...

INES Ez dago berandurik: aldi guziak dira egokiak.

IMANOL ¡Alaba!

INES ¿Zer aita?

IMANOL Jakin ezazu, ez dala nere eřuz egokera ontan arřkitzea... Zintzoak izan dira nere egikerak... bañan... adizkide gezuřti ta... lagun dořoř batzuek galdu naute. (*Ines'ek itz auek entzutean erakutsiko du bere arřmena, bañan Imanol'ek oarřtu gabe.*)

INES (*Izutuz.*) (¡Zerř dio!) (*Indařketuaz.*) Ba... aita; lagun oyek galdu bazaituzte ere: ez zaitzala beņepin galdu deabruak. ¡Zeruratu zazu zure anima!

IMANOL Bai..... (*Negar-malkotan.*) Bai..... nere alabatxo maitea.

INES Nik omenduko zaitut, aita!

IMANOL Bai... bai...

INES ¿Deituko al-diot bada apaiz jaunari?

IMANOL Nai dezun guzia...

INES ¡Ze poza! ¡Ze atsegiña ematen didazun, aita!

IMANOL ¡Gaxoa!

INES Banoa bada, zure baimenaz..... Bereala itzuliko naiz.

IMANOL Bai: ta, datořela mořoya bitarġtean.

INES Ongi da..... (*Abiatuz.*) ¡Eskeřak Jaunari!..... (*Badijoa.*)

IMANOL (*Bakařik.*) ¡Alaba gaxoa! Ez daki zeř datořkion ni iř-ondoren!... Orain arġte... ¡nai zuen guzia!... auřerakoan, jezeř-eza!... (*Tamal.*) ¡Gaxoa!.. (*Atetik.*) Bada baimenik?

MORĖOIA Bai... auřera. Atoř onera... Gaizki natxiok.

IMANOL ¿Nai aldu ba gelara eramatia?

MORĖOIA Bai... obe izango dek. Alde guzietan bereala nekatzen nauk.

IMANOL Ba, orain beste alditxo bat gelan igaroko du: gero oeratu; ta ořela, txandaka.

MORĖOIA Bai: zerbait asmatu beařko.

IMANOL Tira ba (*laguntzen dio poliki jeikitzen.*)

MORĖOIA Kontuz!... Etzeukat ezeřtarako indařik.

IMANOL Eldu ondo neri... (*Badijoaz.*)

MORĖOIA Biotz au... makal zebilek.

IMANOL Indařtuko da geroago.

MORĖOIA¡A!..... (*Sařtzen dira gelara...*)

BOSKAŘEN AGEŘALDIA

Ines bakařik; gero Joxepa, Apaiz Jauna ta Mořoia.

INES (*Sařtuaz.*) Bereala etořiko da. (*Aita ez ikusiz.*) ¡O! ez dago emen. Oeratzeko joango zan... Obe, (*Exeritzen da oldozkoř.*)... ¡Ze eragozpen ote du aitag, lenengotik aitořtzera ez jařtzeko!..... Korap!o gogořen batek lotuta dauka bere biotza noski!..... ¡Ez duela nai ni gaizki arġkitzerik!.....

Bañan ¿zeñ dala ta? ¿Bere ondasuntzaz ote da?
 ¡Ai Jauna!... Dana dala: Nere aitari egin
 zaizkioten gaiztakeriak nik orðaindu beara badet
 ere, geñtu nago: betoz neke ta miñak, nere
 aitaren zorion-alde, ta bere eru ta uts-egihen
 orðaina badira!... (*Ixilik*)... Bai... ¡Zeñ izango ote
 da nitzaz!... ¡Aita gabe, bakañdadean!...
 (*Kemenez.*) Ta ¿zeñ?... Jaunak ez nau utziko...
 Zeruko Ama nerekin izango da!
 (*Sañtuaz.*) Apaiz jauna etoñ da.
 Datoñela auñera. (*Jeikitzen da.*)
 JOXEPA (*Joxepak irikitzen dio atea.*) Añatsalde on.
 INES Ongi etoñ.
 APAIZA ¿Zeñ degu, Ines?
 INES Badaki... Aita, sendagileak esan ditanez,
 añiskuan añkitzen da;... eta bada-ezpada, ondo
 etoñiko zayo geñturik añkitzea.
 APAIZA Bai, ala da. Egin-beañak garaiz bete-beañ dira ta
 ez utzi gerorako.
 INES Batez ere, nere aita bezela añkitu ezkeru: bada
 ustegabeko aldañte-gaizto bat etoñ litzakioke.
 APAIZA Bai, eriotzaren iragañirik ez du iñoñk auñez
 izaten. Esan oi dan bezela, lapuñ leyotik bezela
 eriotza ere ixil-ixilik datoñkigu; eta usterik
 gutxien degunean, ezañtzen digu bere erpe
 zoñotza, ta igitatzen dizkigu... irudiz iraunkoñ
 diran bizitzak.
 INES Guazen bada, Jauna. (*Gelara.*)
 APAIZA Nai dezuna.
 INES (*Gelako atea irikiaz.*) Ara emen apaiz jauna, aita.
 (*Sañtzen da.*)
 IMANOL (*Bañendik, ixilkiro.*) Auñera.
 APAIZA (*Sañtuaz.*) Añatsalde on. (*Ateratzen da Moñoia.*)
 MOÑOIA (*Bakañik.*) Gaizki añkitzen da nere nagusia: ta
 nere ustez, ez du luzaroko bizirik... ¡Alaba
 gaxoa!... ¡Eñuki det!... Bada... geldituko da
 umezuñtz eta nik ez dakit nola antolatuko dan...
 Diru asko izango du, bañan, ¿zeñ egiteko
 emakume bakañak?... Gizon leyal ta zintzo bat
 beañ luke oñek, bere ondasun ta diruak beañ dan
 bezela zuzen arautzeko:... ta oñetarako... ez dago
 zeñ esanik...

INES (Gelatik ateriaz.) ¡Jaungoikoak entzungo al-digu.
MORÓIA Bai andrea. ¡Zu bezelako aingeru bati entzungo ez dio bada!

INES Aingeruak zeruan daude.
MORÓIA Baita munduan ere: zu bat.

INES ¿Zer deizkiozu aitari? (Exeriaz.)
MORÓIA Makaltxo arkitzen da: bañan poliki ta arduraz zaindu ezkeru, zuk zainduko dezun bezela, sendatu liteke.

INES ¿Uste dezu?
MORÓIA Nere ama berdin-berdin arkitzen zan. Geřtaketa batek izutu zuen, ta izualdi ařek biotza gaizkitu zion: eta zure aita bezela, batean jeikita, bestean exerita, noiz ilko ote zan, beti gaizki, bañan, luzaro bizi izan zan.

INES Ez dakit!... Aspaldi ontan gaxoak atsekabe asko igaro ditu... ta biotz-indařa aitu arazi diote.
MORÓIA Bai, ala da. Ta nik uste det, bere adiskide ta lagun onentzat arkitzen ziranak izan dirala beretzat kaltegarienak.

INES Sařitan geřtatzen dana.
MORÓIA Ez luke bañan geřtatu beař!
INES Ez; ala da. Bañan, gauř egunean gizonak ez diote begiratzen zindotasunari, nořberaren onura ta irabazkinari baizik.

MORÓIA Bai; ¡zorieko diru ořek beařketa aundiak ematen dizkigu!

INES Ez da dirua bakařik: Diru-nayak baño geyago erotzen ditu gizonak aunditasun ta gaintasunak. Ez du iñořk nai besteen menpeko izaterik, nagusi ta jauntxo baizik; ta izakera ořek ekařtzen dizkigu bekaitz, gořoto, buřuka ta gaiztakeri guziak.

MORÓIA ¡Ařokeri ta aundikeriaren emaitz eta sořpena!
APAIZA (Atea irikiar, mořoyari.) Gazte...
INES (Pizkoř jeikiz.) Zer bait al-du aitak?

APAIZA Ez; dijuala au nagusiari lagun egitera.

INES Bañan, gaizkiago arkitzen al-da?

APAIZA Ez, zu zaude geldi: moñoiak lagunduko dio. (*Moñoia gelara.*)

INES ¿Aitořtu alda?

APAIZA Bai; oso ederki: ořetzaz pozik egon beař dezu.

INES Bai, jauna; poz-pozik arkitzen naiz; bada, biđuř nitzan ezeregin gabe eriotzak ařtuko ote zuen.

APAIZA Ba, garaiz ta ondo egin du. Ta orain beste gauzatxo bat esan beař dizut. Ez da atsegingařia bañan berak agindu dit iř-bañoien zuri esateko; ta nere egin-beařa bete beař det.

INES (*Ařiturik.*) ¿Zeř da, Jauna?

APAIZA Exeri zaite. Esango balizuke aitaren *anima* zugatik zeruratuko dala, bañan ordañez txiro ta beařtsu igaro beařko dituzula uřteak mundu ontan, zeř irudituko litzazizuke?

INES ¡Al, jauna!... Badakit zeř dan!... Somatu nuen zeřbait!... (*Negařez.*) ¡Jaungoiko laztana!...

APAIZA Bere naia da, Ines. Jainkoak bidaltzen dizu bere maitasun-dematzat.

INES ¿Zeřgatik bañan, jauna? ¡Eřuki izan bedi nitzaz!

APAIZA Etzaitu aztuko Jaunak. Berak lagunduko dizu eramankizun guzietan.

INES Beařko... beařko laguntasuna, onelako nekegařiak igarotzeko.

APAIZA Izango dezu: baita, poztasun ta atsegin ugaria ere, neke oyek eramanpenez ařturik, aitaren *anima* zeruratu dezula gogoratuaz. ¿Ez al-da ořela? ¿Ez al-da zure maitasun oso ta aundiena, zure aitaren anima zeruratzea?

INES (*Gogo-aldatuaz.*) ¡Ai, jauna! ¿Nere aitaren anima zeruratzeko, neke ta atsekabeak ařtu-beařa al-det?

APAIZA Bai, Ines: ořela da. Txirotasun ta beařtasunean arkitu beařa dezu. Ořela geřtatu da, ta geřtakizunak datozen bezela ařtu beař dira.

INES ¡Ta... batere gabe... ezeřtxo gabe gelditu beař al-det?

APAIZA Ez luke nai ori zure aitak eta nik ere uste det... zeřbaitekin gelditu ziřakela, aitaren egin-beařa al-danik ondoen beteaz: bada, Jaungoikuak ez du eskatzen neke aundi gabe ezin dan beařkizunik.

INES Ta... ¿Jakin al-nezake ze bearkizun bete-bearean arkitzen dan nere aita?

APAIZA Zure aita gaxoak... bete-bear du bearkizun gogof bat... ta bearkizun ori da... diru ta ondasunak itzuli beara.

INES Ta ¿guzi-guzia itzuli bear al-du?

APAIZAGuzia..... bai: banan, zu ezeñ gabe ez gelditzearen.....

INES (*Kemenez.*) ¡A, Jauna! Ez det nai neregatik bearkizun ori bete gabe gelditzerik: nayago det ezeñtxo gabe gelditzea, nere aitaren anima, ariskuan jartzea baño!

APAIZA ¡Ori da gogo-aunditasun ta egizko maitetasuna!

INES ¡Ori da nere egin-beara: ta geñturik nago neke guziak neregan eramateko. Txirotasun, beartasun ta apaltasun guziak ez naute ikaritzen. ¡Betoz neregain ordainpide guziak, nere aitaren anima zeruratzeko badira.

APAIZA ¡Ze biotz edeñ ta maitekora dezun!

INES Nere aita da, jauna.

APAIZA Bai; ta zu bere alaba zintzo, eredu ta oberik eziña. Jaungoikoak ordainduko dizu!

INES Berari eskeñak emanez, orain arte aukeraz ta ondasun ugariz bizi izan ba-naiz, auferakoan lan-egiñaz tajutuko naiz nolabait.

APAIZA Edeñki esana. Ta sinistu zazu, zure aitaren anima zeruratuz, zeroñena ere zeruratuko dezula.

INES Ala nai nuke.

APAIZA Bai, Ines, ala izango da: ta mundu ontan ere iritxiko dezu zoriontasuna: bada Jaungoikoak ez du utziko ordaindu gabe zure onbide zintzo ta maitasun edeñ ori. Ta orain, aitari zerbait esatera noa, bere biotza lasai ta atsedentsu jañi dedin. Zu zaude emen. (*Gelara doa*).

INES Ongi da, jauna. (*Oldozkoñ.*) (*Txiñin-otsa.*)¿Noñ ote da? (*Ixiñik.*) (*Joxepa ageri da.*) ¿Zeñ da, Joxepa?

JOXEPA Idazki bat zuretzat. (*Ines'i emanaz*).

INES ¿Idazketaria izan al-da?

JOXEPA Ez, ezkuz ekañi dute. ¿Apaiz jauna aitarekin al-dago?

INES Bai, Joxepa. Laister aterako da onezkero, ta gertu itzazu garagarño ta goxore batzuek.

JOXEPA Ongi da. (*Joaten da*.)

INES (*Idazkia irakurtzen*.) «Ines anderea: Zuen sendagile jaunak esan ditanez, aita gaxoaren eritasunak ordu lañi ta estuak igaro-arazten dizkizu. Atsekabe aundia soñtzen zait zu oñela arkitzeaz ta joan naiz bereala, zuen Sendagilearen baimenaz, atzo eñi ontara etoñi zan nere adizkide Arangoiti sendagile ospetsuaren gana: ta geñtu dago zure aita ikuskatzeko. Joango da zortzirak aldean: neronek lagunduko diot. Zuk ez dezu ezeñtxo ere arduratu beañik. Zuganako maitasun gañtsuak beañtzen nau zure alde zerbait egitera, eta zure egoera ñun ta lañia arintzeko ustez nere laguntasun osoa zuri eskeintzera. Agindu bada, Ines maitea, uste ta azkatasun osoaz, orain ta beti. -Añiaga'tañ Ixidoñ.» (*Izketan*.) Erakusten du onek zindoro bere biotz xamuña..... ¡Eskañtzen diot!.....

SEIGAREN AGERALDIA

Lengoak, Karñele ta sendagile; gero Ixidoñ.

MORIOIA (*Ateratzen da gelatik laisterka*.)

INES (*Añituta*.) ¿Zeñ da?

MORIOIA (*Gelditu gabe*.) Sendagileari deitzera noa.

INES (*Negañez*.) ¡Ai nere aitatxo!..... ¡Il beañ du!..... ¡Jaungoiko maitea! (*Sartzen da gelara*.)

JOXEPA (*Beste atetik, añituta*.) ¡Nora joan ote da moñia laisterka?..... ¡Ta emen ñoñ ez!..... (*Gelaruntz joanez*.).... Nagusia gaizkiagotuko zan..... (*Ate ondoan, entzun naian*.) ¡Gaxual!..... Ines negañez ari da!..... ¿Sañtuko ote naiz?.... (*Zintzañi deya*.) ¿Noñ ote da? (*Joaten da atea idikitzera*.)

KAÑMELE (Sartuaz.) Zeñ geñtatzen da?
 JOXEPA Ez dakit oraindikan ezer. Sukaldean arkitzen nintzan lanean, ta moñoia laisterka ikusi detanean arituta gelditu naiz.

KAÑMELE Neri ere ori geñtatu zait. Kalean bat-egin det moñoiarekin, ta galdetu diot beñi txaren bat ote dan, bañan ez du izan erantzuteko astirik.

MOÑOIA (Sartuaz.) ¿Bizi al-da?
 JOXEPA Ez dakit ba.....
 KAÑMELE Ain gaizki utzi al-dezu?
 MOÑOIA Bai.....il ez-bada..... (Sartzen da gelara.) (Kañmele ta Joxepa zerbait ikusi nayeanean.)

INES (Bañeanean.) ¡Aitatxo maitea!..... ¡Agur!.....
 JOXEPA (Erdi negañez.) ¡Gaxoa!
 KAÑMELE Tamalgari da..... bañan, eriotze ona izango du, ta Jaunari eskeñak ematekoa da geñtasun ortan iltzea.

SENDAGILEA Aratsalde on. (Zuzen gelara.)
 JOXEPA Sendagari eragile bat emango balio!
 MOÑOIA (Gelatik ateriaz.) Zapi leun bat, Joxepa.
 JOXEPA ¿Nola dago?
 MOÑOIA ¡Gaxoa..... oñenak egin du!
 JOXEPA ¿Il alda?
 MOÑOIA Ez, bañan, ez da luzaroko. Ots! zoaz bizkoñ. (Joxepa badijoa.)

KAÑMELE ¡Gaxoa!
 MOÑOIA Bai gaxoa, bañan gaxoago Ines, bere alaba zintzo ta garbia.

KAÑMELE Ala dirudi, bai: bein bakañik itz egin det berarekin, ta beñtan oso egokia iruditu zait.

MOÑOIA ¡Izango ez da ba!
 KAÑMELE Tamalgari da aita iltzea, ta beraz, umezuñtz gelditzea; bañan izango du ongi izateko bidea, Jaungoikoak osasuna ematen badio.

MOÑOIA (Beretzat bezela.) ¡Gaxoa! Orain arte ugaritasunean..... ta auñerakoan ezer gabel!.....
 KAÑMELE ¿Zeñ? ¡Ines ondasun gabe?

MORÓIA Ezin det uleřtu.... (*Joxepa agiri ez delako.*)
¿Noraiño joan ote da Joxepa ori?

KARMELE Bañan ¿zeř diozu? ¿Ez al-da ba etxe bat baño
geyagoen jabe?

MORÓIA (*Beregain.*) Ez nuen ezeř esan beař....
(*Karñele'ri.*) Ez..... nere iritzi bat.....

KARMELE (*Beregain.*) Zeř geřtatzen ote da! Ba, nolabait
jakin beař det.

MORÓIA Emakumea!..... zeřtara etoři zera?

KARMELE Nik..... gauzak gařbi esatea nai izaten det.

MORÓIA Baita nik ere, ta..... ¡tira! orain ez da
beřiketarako garaia!

KARMELE Ez dira beřiketak..... ¡Iñori etzaio ziririk sařtu
beař!

MORÓIA Ziria sařtu?

KARMELE Au ta bestea dituela ta.....

MORÓIA ¡Zoaz emendik, emakume dołoř ori!.....

INES (*Gelako atetik: atera gabe.*) ¡Zaudete ixilik, ¡otoi!
(*Ixten du atea.*)

JOXEPA (*Zapia mořoiari eman ez.*) ¿Bañan zeř dezute?

MORÓIA (*Zapia ařtu ta gelara dijoala.*) Leyotik botako
nuke ořelako emakumea!

KARMELE ¡Jakingo det zeř egin! (*Abiatuz.*)

JOXEPA ¿Zeř dezu, emakumea?

KARMELE Ezeř ez..... neri ez diratela ziririk sařtuko: ta
Ixidoř'i ere ez. Aguř. (*Badijoa.*)

MORÓIA Zuaz, andrea, zuaz! Ori beař degu orain.....
¡lendik ez degu atsekaberik eta!..... Bañan,
¿zertara etoři da emakume ori?

INES (*Bařenen.*) ¡Ai nere aitatxo maitea..... ¡Aguř!

JOXEPA ¿Zeř ote da? (*Joaten da gelaruntz.*)

INES Eřuki zaitte, Jauna!..... Il da nere aita!

JOXEPA (*Negařez.*) ¡Il dala!..... ¡Jesus!..... (*Irikitzen da
gelako atea, ta ateratzen da Ines negařez, eta
Apaiza beré ondoren, eta auek ateratzean
sařtzen da Joxepa.*)

APAIZA Ez etsi ořegatik. Jaři zazu Jaunarengan zure
uste guzia.

INES Gaizkatu ote da nere aita!..... ¡Zeruratu ote da
bere anima!

APAIZA Bai, Ines. Ez izan ezbairik ořetaz. Zure opari ta eskeintzaz, zure maitasun ta zintzotasunez inguraturik zeruratu da zure aitaren anima. ¡Goyan bego!

INES Biotz-biotzez eskeintzen dizkiot Jaunari nere atsekabe, oñaze ta bizitza guzia. (*Jařaitzen du negařez.*)

APAIZA Berak ořdainduko dizu. Zure onbidezko egipen ařigariak, izango dute saria.

IXIDOR (*Atsekabez ageřtuz, atetik:*) ¿Sařtu al-niteke?

APAIZA Auřera, Ixidoř.

INES (*Malkoak legořtzen ari da, ta Ixidoř sařtzen danean ageřtuko du ařpegiya.*)

IXIDOR (*Ziñez ta benaz.*) Biotz-biotzez laguntzen dizut zure atsekabean.

INES (*Apuř batean Ixidoř'i begira egonez.*) ¡Badet lagundu beařa..... ta Jaunari eskatu beařko..... batez ere zure izebaren izakera ikusita.

IXIDOR Badakit emen izan dala..... (*Tamal.*)

INES Bai, ta nere biotza mindu duela ere bai.....!

IXIDOR Ines: zure biotza mindu badu, neretzat ere mingaři izan da. Nik ez det beař beste gauzarik: zu bakař bakařik. Ořegatik natořkizu nere biotzezko aitořpenaz, zure neke ta miñak arintzeko ustez.

INES Eskeřak biotzez.

IXIDOR Nere izebaren izakerak, ez du itzalduko nere zureganako maitasuna. ¿Ontzat-ařtzen dirazu bada nere eskeintza?

INES Bai, Ixidoř: ta eskeřik asko.

IXIDOR Zuri ezkeřak.

Lenengo atalaren azkena.

BIGAREN ATALA

AGERTOKIAN.- *Jostun txiro ta beartsuaren lantegi bat. Lan-mai, aulki ta josketarako beař diren beste lankaiak. Orman exerita Ines'en aitaren antzezki bat. Axote, ingi ta idaztořtza.*

LENENGO AGEŘALDIA

Joxepa bakařik, gero Ixidoř

JOXEPA

¡Ines gaxua! Ludi ontan egipidez uts-gabeko emakumerik ba-da, Ines da bat. Lenago bere aita bizi zanean, osasun ta lasaitasunez inguraturik, beartsuei lagunduz, alde guzietan dirua zabaltzen... Bai: amaika nekazari ta beartsuen negař-malko legořtuazi ditu. Orain, bera arkitzen da beartsu... Zaiř da, goian ugaritasunez arkitu diranentzat beera jetsirik ezeř-ezean ta beartasun apalgaria oitutzea... Eskeřak bere onbide sendoari. ¡Ona da gaxoa! neretzat oberik eziņa.... ¡Ixidoř'ekin noizbait bat-egingo balu!.... ořduantxe poliki..... (*Deya*),..... ĉNoř ote da? (*Irikitzen du atea*.) Auřera, Ixidoř jauna.

IXIDOŘ

(*Sařtuaz*). Egun on.

JOXEPA

Baita zuri ere.

IXIDOŘ

ĉEz al-da Ines etxean?

JOXEPA

Ez; baņan laisteř etořiko dala uste det.

IXIDOŘ

Ezingo det itxoin.

JOXEPA

Beař-beařekoa al-dezu?

IXIDOŘ

Bai, beařekoa ta..... zoritxařez naigabekořa.

JOXEPA

ĉKorapiřoen bat al-degu orain ere?

IXIDOŘ

Beřirik ez; baņan lengoa azkatu ezina. Geroago ta gogořago arkitzen da. Ta ez det arkitzen nere aita limuřtzeko biderik.

JOXEPA Ta; ¿zergatik arkitzen da, ba, zure aita jañera oñtan?

IXIDOR Ba, Ines len aberats eta orain ezer-ezean arkitzeak susmo txarrik ematen omen dizkio bere aitatzaz ta esan dit, ez dala ezkonduko bere seme bat gora-bera oyek izan dituan gizon baten alabarekin, geñtagai oñen sustraya ageñtu gabe.

JOXEPA (*Kemenez.*) Ta ¿Ines'en eñuz izan al-da ba? (*Eñukioñ.*) ¿Gaxoa! ¿beretzat izan da kalterik aundiena!

IXIDOR Bai, ala da.

JOXEPA ¿Amaika etsipen añtu beañ da mundu ontan!

IXIDOR Ala ta guztiz ere, ni gertu nago jañaitzeko: ta esango diozu Ines'i nik eztedala utziko, ta..... ez estutzeko oñegatik. Gauñ ez bada, biañ izango da. (*Abiatzen da*).

JOXEPA Laister etoñiko da onezkero.

IXIDOR Bai, baña ez nuke nai nere aitak emen izan naizela jakiterik, ta banoa laisterka.

JOXEPA Zoaz ba; ta esango diot.

IXIDOR Egokitzen bazait, etoñiko naiz gero, berarekin itz egitera.

JOXEPA Ongi da.

IXIDOR Aguañ.

JOXEPA Zoaz ongi.

BIGAREN AGEÑALDIA

Joxepa bakañik, gero Ines.

JOXEPA Zintzoro agertzen da mutiñ ori..... Goralgañi da bere gizabidea! Orain, bere aitak ze asmo añtzen duen ikusi beañ! Nere ustez, izebak eñu geiago du, aitak baño. ¿Ondo gogoratzen naiz bai, Imanol gaxua iñ-zorian arkitzen zanean, zeñ egin zuen emakume añek! Ines'en ondasuntaz zerbait somatu zuenean..... ¿kaixo mutiñ!..... ¿Ori ez da gizalegea!..... (*Oñ-otsa somatuaz.*) Badatoñ..... (*Ines, beltzez jantzita, apalki ageñtuko da: bañan bere jatoñizko eredu ta gizapidea adiraziz.*)

INES (Safturik). ¡Au mundua, Joxepa!

JOXEPA ¿Zer da ba?

INES Deabrua beti ari da lanean naspil-ondoren.

JOXEPA Ez du beste zer-egiñenik; bañan zu menpetutzea nai badu, izango ditu lanak.

INES Ez dakit..... ez dakit..... Uste gutxien danean arkitzen dira naigabeak.

JOXEPA ¿Ixidór ikusi dezu, noski?

INES Bai.

JOXEPA Emen izan da.

INES Ba, emendik zijoala kale-beñtan bat egin degu!. Gelditu nau, ta iru edo lau itz egin baño len, ikusi gaitu bere aitak..... ¡Ora!..... ¡Ez dizut esan nai nolako arpegi iluna jañi digun!

JOXEPA ¿Bai, e?

INES Bai, Joxepa: arpegi iluna benetan. Ni izututa gelditu naiz, ta esan diot Ixidór'i, oñelako atsekabeak eramatea baño nayago detala gure maitasun-bideari utzi, ta pake-pakean bizitza.

JOXEPA ¡Ori esango zinion bada! Ta, ¿zer erantzun dizu?)

INES Ez estutzeko oñegatik; ta jañaitzeko. Bañan, badakizu, bere aitaren gozoz izan ezik, ez ditugu izango naigabe ta atsekabeak baizik. ¿Nola naidezu bada jañaitzea?

JOXEPA Ala da, bañan..... nere ustez. Ixidór bayetzean dagon artean, zuk ez dezu atzera-egin bear. Bada, zindoro jañaitu ezkerro, gauñ ez bada biar, Ixidór'ek limuñtuko du noski bere aita.

INES (Ziñestegabe)..... ¡Baliteke!.... Bañan, ni ez naiz aleginduko. Berez ta bide zuzenez etoñtzen bada..... ongi etoñi; bestela auñera gure lanean.

JOXEPA Bai..... bai..... ala da. Bañan, ain egoki aukeratu, ta, gero ezef-ezean gelditzea ere..... tamalgañia da.

INES Ta, ¿zer egingo diogu ba?..... Jaungoikoaren naya izango da, ni beañtsu arkitzea: ta geñtu nago egoera ontan jañaitzeko..... zuk laguntzen badidazu.

JOXEPA Nik bai; ni ez naiz alduñduko zuregandik. Bañan, badakizu, bete-betea gabiñtza janari ta beste beañ-beañeko bizigañiak irabazteko: ta ogia geroago ta garestiago, babañun ta patatak apaña bezela gorontz; etxe-eñentak beñiz, eñuki gabe

- jaso ta jasotzen ari dira; ta..... oñela beste gauza guziak. ¿Nola nai dezu?
- INES Bai, oñela da; bañan, guk ez degu gauza aundi beařík bizitzeko. Lenago ugaritasunean bizi izan ařen, oitu gera uritasunean ere. Zoriontasuna, Joxepa, gauzak datozkigun bezela aítuz arkitzen da.
- JOXEPA Bai..... zu bezelako ontzale ta donetsua izan ezkerero.
- INES Donetsua izateko askoren beařeán arkitzen naiz. (*Deya*). Ea noř dan. (*Joaten da Joxepa atera.*)
- JOXEPA (*Idazki bat eskuan dakařela.*) Idazkia zuretzat.
- INES (*Jeikiáz*) ¿Zeñena ote da? (*Izenpeari begiratur.*) ¡E! Ixidor'en aitarena? ¿Ze ote dakař! (*Irakuřiaz.*) «Ines jostunari.»
- JOXEPA Idazki-buru motza jaři du.
- INES (*Irakuřiz.*) «Etoři nintzan eři ontara udate alai ta paketsua igarotzeko ustez: bañan zure uzi ta auzařkeriak erogatzi beař dirate». (*Izketan.*) ¡Auzařkeriak!..... ¡nere uzi ta auzařkeriak!..... ¡Au ere entzun egin beař!..... ¡Jaungoiko maitea! (*Irakuřiz.*) «Ikusi zaitut Kale-beřian nere semearekin izketan; bañan, alpeřik zabilta. Nere semea ez dago jostun gaxo batekin berdintzeko; batez ere, zure aitatzaz entzun ditudanak argitu arće» (*Negařez.*) ¿Zeř esan nai du nere aitatzaz? ¡Nere aitak azken zintzo ta zuzena izan du! zeruan dago: ta zerbait esan-beařa izan da ere, nik ez det eřurik.
- JOXEPA Ez, Ines, ta gizon ořeak ez du zeř esan beařik ere.
- INES Esan dezala garbiro, zeř entzun duan nere aitatzaz.
- JOXEPA (*Zaleki.*) Ez nekatu, Ines, ta jařaitu irakuřtzen.
- INES Ez..... ez det nai geyago irakuřtzerik ere!..... Jařaitu zerořeak, nai badezu. (*Idazkia eman ez.*)
- JOXEPA (*Idazkiari begira*)..... ¿Non ziñan?..... (*Irakuřiz*) «alpeřik zabilta»..... ¡A! emen da. «Utzi bada auzařkeri oyei, ta jakinarazi nere semeari, neronek beste bide bat arću baño len». Ařiaga'tař Eřamun.

INES (*Jeikitzen da*). Oraintxe beñtan idatziko diot.

JOXEPA ¿Nori?

INES Ixidoř'i.

JOXEPA Ez dezu ori egin beař.

INES Bai ta bereala. Ez det atsekabe-biderik beař.
(*Exeri ta jařtzen da idazten.*) (*Ixiř aldia.*)

JOXEPA ¿Zeř jařtzen diozu?

INES Ba..... ¿ez al-dezu irakuři zeř dion idazkiak.
(*Jařaitzen du idazten.*)

JOXEPA (*Auxen da ba!..... Badakit Ixidoř naigabetuko dala..... ¡Tamalgari da!*) (*Ines'i.*) Nik ez nioke ukorik emango.

INES (*Idazten ari dala*). Ez diot ezetzik ematen: baizik adierazi pakean uzteko, bere aita egokera ořtan arkitzen dan arġtean.

JOXEPA Nik uste det..... apaiz jaunari esatea izango litzakela egokiena. (*Ixiř aldia.*)

INES (*Idazkia amaituaz.*) Naikoa da onekin. (*Sartzen du azalpean.*)

JOXEPA ¿Zeř jařtzen diozu?

INES Esan dizutana bakař-bakařik.! (*Idazkia emanaz.*)

JOXEPA ¿Bidaliko al-diozu?

JOXEPA Bai, bai, ĳdatořena datořela! (*Abituaz.*) Emen naiz bereala. (*Joaten da.*)

INES (*Bakařik.*) ĳGora-bera asko ikusten da ludi ontan! ĳGoitasun ondoren apaltasuna! ĳonespen ondoren, narga ta erdeņuak!..... ĳLudi atzipekořa benetan! Atsedeen, zorion, pozkida ta alaitasun iduriz, kezka, zorigaitz, atsekabe ta goibelaldiak damazkigu..... ĳMundu ontako biziera, ez da, ez, egiazko bizitza! beraz, aldeakegun gogo-atsedena, jaungoikozko legedi-arauz bakař-bakařik iritxi genezake, datořkigun zorion apalki jařaituz. (*Oldozkoř.*)

JOXEPA (*Sařtuta.*) Bidali diot.

INES Ongi da..... (*Gogo-aldatuz.*) Ta ¿noiz asi beař degu lanean?

JOXEPA ¿Ekañi al-dezu Andre Konstantziren soñeko
miesa?

INES ¡Ene bada! ¡ez da gogoratu ere! Zoñtziretako joan
beař nuen neuñiak ařtzera!

JOXEPA Tira..... ez du zer-egin aundirik eta etxean ařki-
tuko dezu oraindik.

INES Bañan jau burua!

JOXEPA Ez naiz ařitzen. Ixidoř-ekin kalean bat-egiteak
aztu-arazi dizu.

INES Baliteke... Ba, bereala joan beař det. (*Abiatzen
da.*)

JOXEPA Bai, bai, bestela ez degu lanik.

INES Laister biuřtuko naiz. Gero ařte.

JOXEPA Bai.

IRUGAŘEN AGEŘALDIA

Joxepa bakariř, gero Apaiza

JOXEPA ¡Au ere bada ba!... «Usterik gutxienean, gurutzea
atari auřean». Esaera au geřtatu da gurekin...
Bai, jakiña: «Usteak alde erdia ustel». Baña ¡zeř
egingo diogu ba!... datořkigun bezela ařtu beař
bada «pake txara ohea da, geřa ona baño»...
¡Ines gaxua!... ¡Amaika neke ta samintasun
eraman beara ba-du! Aita bizi zanean, etzan
ořelakorik: mordozka ageřtzen ziran ezkongaiak
bere ondoren. Bañan egia esateko, ez dira
guziak berdiñak: Ixidoř orain ere, bere alde,
zintzoro ageřtzen da, ta pozik ařkitzen giñan,
bañan... ořek ere kale egin beař digu.

APAIZA (*Sařtuaz*). ¡Aguř Miren garbia!

JOXEPA ¡Eřu gabe sořtua!

APAIZA ¿Zeř da Joxepa?

JOXEPA Emen gaude... lan egiteko asmoz. Ta, ¿berořek
zeř darabiř?

APAIZA Zuek ikustatuaz. Joan dan asteko
joskintzaren ordaiña ekařtzera.

JOXEPA Ez naiz gogoratzen.

APAIZA Ba, eleizako aldare-zapiak.

JOXEPA ¡A!...ori utsa da.

APAIZA Nik ematen dizudan saria ere ez da izango aundia. Amabost eREAL.

JOXEPA Naikoa da, bai. Exeri bedi.

APAIZA Non da Ines?

JOXEPA Soñeko bat egiteko neuria aRTzera joan da: bereala etoriko da.

APAIZA Tira ba. (*Exeriaz*). Gañera, gerTU beaR didazute zerbait «Eusko-Janztegi»rako ere.

JOXEPA ¿Zer nai du gertutzea?

APAIZA Ori, zuek obeto jakingo dezute. Izan ditezela berogaRIak.

JOXEPA ¡Badizkio... arako... aRTilezko txamaR batzuek umetxoentzat?

APAIZA Ederki asmatu dezu. Langile ta beaRtsuen ume gaxoak beaR dute zerbait neguko aize otz eta ekaitzak eramateko.

JOXEPA Bai jauna, bai

APAIZA Ta, langileak berak ere; ez al-dute zerbait beaRko?

JOXEPA Nai bada txarTes, alkandora naiz txamaRa batzuek...

APAIZA Bai, ederki. Guzia beaRean aRkituko dira gaxoak, neguko otz eta bustitzeari auRka egiteko.

JOXEPA Ba, aleginduko gera pizkot ta ondo egiten; onuratsu ta goralgaRIA dalako egikizun ori.

APAIZA Bai, bai; badakit, zuek al-danik ongien egingo dituzutela, ta... geyegi irabazi gabe.

JOXEPA OREtara beaRTuak gaude, txiroen alde izan ezkerO: bada, ¡zenbat beaRTsu ta langile gaxo ikusten ditugu otz-ikaraz, soñeko gutxi ta erdi uRatuak dituztelako!

APAIZA Bai; eRukaRI dira gaxoak.

JOXEPA Aberatsak geyago arduratu beaR luteke eusko-janztegi oyei lagunduz.

APAIZA Bai, bañan, askoz ere geyago egiten dute arako... bitaRtekoak; ez beaRTsu ez aberats aRkitzen diranak. Egia esateko, badira banakak aberats aRtean ere. Lengo egun batean, esan didatenez, befogei ta amaR alkandora sendo-sendo ta berogaRIak bialdu omen zituan Ondegi'taR Miren andereak.

JOXEPA ¡Ze ederki!
 APAIZA Onuratsua ta beař-beařekoa da egikizun ori;
 batez ere aberats eta lasaitunez bizi diranentzat.
 JOXEPA Bai, bařan, goimaitasun gutxi dute bere
 biotzetan. Beařtsuak, berori bezelako jaun
 biozdun beařean ařkitzen dira, ta... (*Itunduz*).....
 gu ere bai; batez ere garai ontan.
 APAIZA ¿Zerbait al-dezute?
 JOXEPA ¿Zerbait bakařik? Bai, jauna, bai.
 APAIZA ¿Zeř da ba?
 JOXEPA Ba... Ixidoř'ekin ezkontzeak ere, uts-eman beař
 digula.
 APAIZA ¡Egia ote da!
 JOXEPA Obe ez.
 APAIZA ¿Nola bařan?
 JOXEPA Ba... aita ez duela nai... (*Ines somatuz*). Ba
 datoř bera.

LAUGAŘEN AGERALDIA

Lengoak eta Ines.

INES (*Sařtuz*). ¡Oi! ¿Emen al-zan berori?
 APAIZA Bai; emen gaude. Zuetaz ere gogorotzen gerala
 erakusteařen.
 INES Badakit berori astuko ez dala: eta biotzez
 eskařtzen diot zindotasun onurakoř ori.
 APAIZA Al-banu... egingo nuke geyago ere.
 INES Naikoa egiten du, jauna.
 APAIZA Askoz geyago eginda zaude ni nere alde auřeko
 urteetan.
 INES Urte ayek...
 JOXEPA Urte ayek joan ziran: oraingoa zuzendu beař
 degu.
 INES (*Joxepa'ri*). ¿Esan al-diozu zerbait?
 JOXEPA Bai; esan diot,

APAIZA Bai, ta arituta gelditu naiz. Bada, nere ustez, Ixidoř'en aita gizon ona da.
 INES Bai, noski.
 JOXEPA ¡Ummm! Seta gogor̄txoa ere izan beař du! Bada, jakitun egon bařo len, ez du gizonak gertaerarik azaldu beař.
 APAIZA ¡Badakit nondik etořiko dan aurka-egite ori! Ezagutzen dezu ori... zera... (nola da ba)... Garcia Ruigomez de Bengoetxea?
 JOXEPA ¡Josu! Luzea da!
 APAIZA Euskal-abizena ageřtu-ařtekoa. Ori egiten dute Madrid-aldeko guziak. Beren guraso ta aiton guzien abizenak asteřtzen ibilřtzen dira, euskerazkoa ageřtu ařte. Ba... Garcia, Ruigomez edo Bengoetxea ořek du alaba bat, eta, badakit Ixidoř'en aita berarengandu nayan dabilela, bere adizkide egiřnaz.
 JOXEPA (Aseře). Eta ėzergatik etoři beař dute oyek onera ezkongai-ondoren.
 APAIZA (Iři-pařez). Gaztelu-aldeko ařtadiak ez omen dute aurřten ezkuřik eman, ta *ezkuř-ordaiñez titulua* eskeintzera etoři omen dira.
 JOXEPA ėZe titulu!
 APAIZA ¡Mařkesa!
 JOXEPA *Mařkesa* al da?
 APAIZA Ala diote: bařan... txanpon gutxitxo *markesa* izateko.
 INES Bai bařan, batak *titulua* ta besteak dirua, oso edeřki izateko bidea.
 JOXEPA ¡Ez, ez, ez!... «Danbolin pagatuak sořu txafa jotzen du».... Ta banoa bařen-aldera. Gero ařte, jauna.
 APAIZA ėBa-al zoaz?
 JOXEPA Bazkaldu beař-badegu, zerbait geřtu beařko.
 APAIZA Ongi diozu.
 JOXEPA Geroařte ba. (*Bařenerako atetik*).
 APAIZA Bai, Joxepa. (*Ines'ř*). Ta... ėbenetan al-da Ixidoř'i Idatzi diozula bere eskapena ukatuz?
 INES Ukatu... ez: nik ez diot auřerako ezetzik ematen: atsekaberik ez izateařen esaten nion itzik ez egiteko beřiz kalean, eta idazkirik ere ez bialtzeko, bada nik ez diotela erantzungo.

APAIZA ¿Ori esan al-diozu?... Bilduř naiz asařetuko ote-
dan!

INES Ta zeř egingo diot ba? Ez da eřez bere aitak
jakin gabe zerbait egitea: ta ni aren bilduř naiz
bada len ere naikoa ikaratu nintzan bere arpegi-
řluna ikusiz.

APAIZA ¡Mařkes txatxu ořek esango zion zerbait zure
aitatzaz!

INES Ori da neretzat tamalgařia.

APAIZA Bai; bařan ez dezu estutu beař: datořena-
datořela, lasai ařkitu. Ni ere kontuz ibiřiko naiz,
ta..... ikusiko da. (*Jeikitzen da*).

INES ¿Ba-al-doa?

APAIZA Bai; ta zuk jařaitu zure onbideari. (*Aterontz
joanez*).

INES Nik Jaungoikoarengan jařtzen ditut nere zori ta
uste guziak.

APAIZA Berak ondoen zuzenduko dizkitzu... Aguř, Ines.

INES Bijoa ongi. (*Ikusten du Ixidoř aterontz datořela*).
¿Ixidoř alda ori?

APAIZA (Atean geldituta). Bai, bera da. (*Ixiliř: Ines
ařituta, zeř egin ez dakiela*).

BOSKAŘEN AGERALDIA

Apaiza, Ines ta Ixidoř.

IXIDOŘ (*Sařtu gabe*). Egun on, apaiz jauna.

APAIZA Ala ekaři, Ixidoř. ¿Zeř degu?

IXIDOŘ ¿Ines emen al-da?

APAIZA Emen izan beař du. (*Bařenera begiratzuz*). ¡Ines!

INES (*Aterontz joanez*). ¿Zeř da?

IXIDOŘ ¿Baimenik ba-det?

INES ¡Auřera!...

APAIZA (*Ateratzeko igitu ta Ixidoř'i sařtu-araziz*). Oř
gelditzen zerate.

IXIDOŘ Ez jauna: berori gabe, ez.

APAIZA Zuek... zerbait esan beara dezute noski, ta...
 IXIDOR Ez jauna, ez: *mesedez* eskatzen diot.
 INES Bai jauna; saftu bedi: nik ere nayago det berofen aurrean itz-egitea.

APAIZA Ots, ba... (*Alegiaz*). Zeñ ote dabil gazte auen artean!
 IIXIDOR Nik bezin ondo badaki beorek.
 APAIZA Ez dakit ba...
 IXIDOR Ona, jauna...
 INES Exeri bitez. (*Aulkiak eskainiz*). (*Irurak benaz itz egingo dute*).

IXIDOR (*Exerita*).. Eri polit ontara etori nintzan ezkeron, nere ibilkera, atsegin ta zorion guziak, Ines, emakume egoki ta onbidetsu onen menpean utzi nituan. Pozez arkitzen nintzan beronen arpegi argia ikusirik eta nere gogo ta maitasuna ontzat artzen zuelako ustez. Bañan.... (*Idazkia erakutsiz*), idazki onek zauritu du nere biotza. Ezin det ziñestu zuk idatzi dezula... Zeñ didazu, Ines?

INES (*Lotsaz ta apalki*). Bai... nik idatzi det; bañan, ez zure biotza zauritzeko ustez... ziñestu zazu, nik ez det ezeftxo ere zure aurka.

IXIDOR (*Maitekoñ*). Oñela izanik... ¿zeñ dala-ta bialdu didazu, idazki au?

INES Zure aita!
 IXIDOR (*Beriala ariturik*). Nere aitak beartu al-zaitu?
 INES Beartu... ez da bai. Badakizu zure aitak ez duela nai nik zurekin itz-egiterik; ta nik ere ez det nai zure aitarekin asare-aldi ta naspilik. *Pake-zalea* naiz.

APAIZA Sinisten det. (*Ixidor'i*). Ines beti izan da pakezalea, ta iñorekin ez asaretzeagatik aukerabide guziak utziko lituzke.

IXIDOR Izakera ona da. Bañan, ¿nola nai dezu, ez idatzi, ez itzik egin gabe jaraitzea?

APAIZA Emen, lenbizi jakin beañ dana da, bata-bestearenganako maitasun egiazkoa dezuten ala ez.

IXIDOR Nere alde, ez dago ezbaierik. Aspaldian soñturik arkitzen zan neregana, nere gogoko emazte-gai irudi bat: bañan, etzitzaitan iñolakoz ageñtzen irudi-ofen antzezkirik, eñ ontara Jaungoikoak zorionez bidali ninduan arte: Ines'engan bakarik

arkitu det antzezki ori. Beraz, jakiña. Ines
bakañik izan diteke nere maitasun-gai.

APAIZA ¿Zer dizkiozu, Ines, aitorpen argi ori?
INES Lotsaturik arkitzen naiz itz oyek entzuteaz.
IXIDOR Biotz-izketa da. Ines: ziñestu zazu.
INES (Apalki). Biotzez eskañtzen zaitut, Ixidor.
IXIDOR ¡Gertu al-zaude bada gure ezkongai-bidean
jañaitzeko?
INES Bide legun ta egokian jañtzen bagera, poz-pozik:
ta ori izango litzake neretzat atsegingariena.
IXIDOR (Pozez). Maitasun egizkoñ ta onbidetsuak bide
guziak leguntzen ditu.
APAIZA Ta... ¿aitak ez al-dizute eragozpenik jañiko?
INES Ori da nere bilduñ-gaia.
IXIDOR Ona: Nere aitak, egia esateko, seta gogoñtxua da;
zakaña da asañetzen danean, ta edozeñ egiteko
gertu arkitzen da, gero negañ egingo ba-du ere.
Oñegatik, bere asañe-aldietan poliki ibili beañ da:
ta biderik onena izaten da, apal-apal egin ta
ixilik egon.

INES ¡Ixilik egon!... Ezda eñez itz iraingariak entzun-
ondoren.
IXIDOR ¡Nere aitak iraundu zaitu, beraz?
INES Nerau... ez: bañan bai nere aita: eta nere aitari
egiten zayona neroni egitea bezela da.
IXIDOR Bai: oñela da... Atsekabe zait!
INES (Tamal). Nere aita, aberats diru-askoren jabe
izan ondoren, il-onduan bate-gabe arkitu zan...;
egia da!.... bañan, beti izango da tamalgañi bere
alabari gogo-gaiztoz oroitarazitzea.
APAIZA Noski... etzuen gogo-gaiztoz egingo.
IXIDOR Dana-dala, gaizki-egiña da.
APAIZA Bai: zorigaitz asko izan du gaxo onek; Dakizun
bezela, aita bizi izan zan arñean, guztizko
ugaritasunean arkitzen zan; etzuen iñoiz izan
ezeñtxoren beañik: bañan, bat-batean arkitu zan
guzia beañean; jokia jateko ere lan-egin beañean!
(Ines'ek ageñtuko du ituntasuna, eskuaz begiak
estaliz).

- IXIDOR *(Laztantasun ta erukiz)*. ¡Ines! Geřtakizun oyek ez dute itzali, ez da gutxitu ere, zu ikusiz bakařik nere biotzean softu zan zureganako maitasuna, sendatu baizik: ta maitasun au, lenengotik zintzoa izanik, gauřtik auřera sendoago ta indařtsuago agertuko da.
- APAIZA Adoretu zaitte, Ines, Ixidof'en aitořpena entzuteaz: bada, onbidez dabiřtzanak, geroago edo laisteřago, elduko dira azkenera.
- IXIDOR Bai Ines. Nere aitak ez du nai: ta gure elkařtasuna ikusiz setatsu ta mukeřkeriz ařkitzen da: egia da; bařan nolabait limuřtuko degu, batez ere... apaiz jaunak laguntzen bagaitu...
- APAIZA Beařtua nago al-detan guzia Ines'en alde egiteko.
- INES Eskeřik asko, jauna.
- IXIDOR *(Ines'ĭ)*. ĆGeřtu al-zaude bada egunen-batean nerekin bat-egiteko?
- INES Atsegingaři ta onuratsu izango litzake neretzat.
- IXIDOR *(Pozez)*. Ez nuan nai bada ori jakitea besterik.
- APAIZA Ia ba, *(Jeikiaz)*, ainbat laisteřen eraltzen dezuten.
- INES ĆBa-aldijua?
- APAIZA Bai: joan beařa det: bařan, nai dezutenean deitu, ni beařean ařkitzen bazerate.
- INES ta IXID. Eskeřik asko, jauna.
- IXIDOR Banoa ni ere: bada, apaiz jaunarekin ikusi ezkerok, aitak ez dit ezeř esango.
- APAIZA Goazen bada. Aguř, Ines.
- INES Eskeřik asko, jauna; ta agindu.
- APAIZA Ongi jařaitu.
- IXIDOR *(Maitetsu, Ines'i eskua emanetz)*. Aguř Ines.
- INES Zoaz ondo.

SEIGAREN AGERALDIA

Ines bakařik: gero Joxepa.

- INES Ořela ageřtzen dan mutiř zintzo bateri, Ćzeř esango diot ba? Baietz esan beař. Egia esateko,

ez da bere diruengatik. Berak esan duana diot nik ere: lagun egoki bat nai det: ta Ixidoř'ek zintzo ta egoki-egokia dirudi... Aitaren biđuř naiz: gogoř egiten badigu, ni ez naiz ausartuko esandako bideari jařaitzen... ¡Nola tajutuko ote gera!... (*Deitzen dio Joxepa'ri, atea puxka bat irikiz*). ¡Joxepa!... ¡Joxepa!...

JOXEPA (*Bařendik*). Banua... (*Ateratzen da*). ¿Bakařik al-ziřan?

INES Bai: oraintxen joan dira apaiz jauna ta Ixidoř.

JOXEPA ¡Ixidoř!... Emen izan al-da?

INES Bai; emen izan da, nere idazkiaz ařiturik bere zintzotasuna erakustera.

JOXEPA (*Leyatsu*). ¿Ta zeř dio?

INES Ez biđuř izateko bere aitaren izakeragatik.

JOXEPA Geřtu dago beraz zurekin ezkontzeko.

INES Bai; gařbi ta zintzo erakutsi du bere maitasun ta naia.

JOXEPA (*Eřdi negařez*). Banekian... banekian... ez nuan ezbairik...

INES Bařan.. ¿zeř da ori?... negař?...

JOXEPA ... Ezin det...

INES ¿Nere ezkontzak izutzen zaitu?

JOXEPA Ez: ongi da zu ezkontzea, batez ere Ixidořekin.

INES Neretzat ongi bada, zuretzat ere izango da.

JOXEPA Bai... bařan, ainbeste urte alkařekin igaro ta...

INES ¿Zeř?... Nere eskontzak banatuko gaituala uste dezu?... Ez Joxepa, ez: zu nerekin izango zera, zuk nai badezu.

JOXEPA Ori da nere gogo ta naitasun guzia.

INES Ba, ez izan ezbairik ořetzaz. Ni Ixidoř'ekin ezkontzen banaiz, zu nerekin izango zera: ta ez neskame, baizik lagun, aizpa bat bezela.

JOXEPA Ez; ez det ořenbeste merezi.

INES Bai ta geyago ere... ¡Ez litzake beař!... Zuregatik, zuri eskeřak, ez nintzan gelditu bakařtasun oso-osoa; ta beařturik nago, nere eskuan detanean, zu ongi izateko al-detan guzia egitera.

JOXEPA Eskeřik asko, Ines.

INES Ez dezu eskerik eman bearik. Ta orain, gai oni utziz, gure egunerokoari jaraitu beař diogu.

JOXEPA Bai: zeregin askotxo degu, lan guziak bukatu beař baditugu.

INES Lenbizi «Eusko-jantzegi» rakoak egin beař dira.

JOXEPA Ez degu izango beař dan beste oyal ta eunik.

INES Ekaři egin beařko dezu.

JOXEPA Bai, dirua balego.

INES ¿Ez al-dezu dirurik?

JOXEPA ¡Nola izango degu ba, josketan irabasten deguna artu orduko urte bete igarotzen da ta!

INES Bai... urte bete edo...

JOXEPA Dan bezelaxe! Biař izango dira bi ilabete «Jauregi-Beri»ko *Kondesari* soñekoa eraman niola: ta... badakizu... batean, ez dala etxean arkitzen, bestean, gizonak eraman diola giltza, ta.. ofela, oraindikan ordaindu gabe: ta ofek bezela egiten digute beste batzuek ere.

INES Ba... beřiz eskatu beařko.

JOXEPA Oraintxen joango naiz; ta egia diotzut: ez nautela utziko diru gabe. Bestela, lapuř egingo ditut, ta epaileari adieraziko diot.

INES ¡Bai zera!... etzera auzartuko.

JOXEPA Ikusiko da... Banoa.

INES Zoaz ba, ta laister itzuli.

JOXEPA Bereala. (*Josten da kalerako atetik*).

ZAZPIGAŘEN AGEŘALDIA

Ines; gero Ixidoř ta Eřamun.

INES (*Bakařik*). Noiz asiko ote naiz lanak egiten!... Au dala ta eztala, ezeřtxo ere egin gabe!... Onela jaraitzen badegu, ez du gauřko egunak irabazte aundirik emango: ta... irabazi gabe, ezin jan. Asi gaitean zerbait egiten. (*Aulkian exeriz asten da oyal bat ebaki naiz josten*).

IXIDOŘ (*Sarturik*). Emen naiz beřiz ere.

INES (*Alai*). Ongi etoři.

IXIDORÉ ¿Emen utzi al-det *pakete* bat?
 INES (*Begira*). Ona emen: ¿au al-da?
 IXIDORÉ Etxean saítzeaz batean gogoratu naiz. ¡Galdu
 balitzakit, ¡nik entzungo nituan entzutekoak!!
 INES Oña ba. Zaude pozik, edozeínen eskuetara erori
 ez dalako.
 EÉRAMUN (*Saítzen da oso asafe*). ¿Emen aiz orain ere?
 (*Ixidoré'i eltzen dio besotik*). ¡Kanpora emendik!
 !lume txatxu ori...
 IXIDORÉ (*Apalki*). Bañan, aita!
 EÉRAMUN ¡Ixo! ¡Kanpora! (*Ateratzen da Ixidoré*). (*Ines'i*). ¡Zu
 zera eédun! Zuk deituko zinion!
 INES (*Apalki*). Ez, jauna; nik ez diot deitu.
 EÉRAMUN ¡Ez al-dezu irakurí nere idazkia?
 INES Bai, jauna: irakurí nuen, biotz-min aundia
 ártuz.
 EÉRAMUN ¡Biotz-miña!... ez dezu itxurarrik. ¿Ez al-nizun
 esaten, pakean uzteko nere semeari?
 INES Ta nik ¿zeé egin diot bada, jauna?
 EÉRAMUN Zeé egin diozun?... Zuk nai espadezu, nere
 semea ez da etxe ontan saítuko.
 INES Ni, jauna, ikusten dezun bezela, jostun bat naiz;
 ta ez det eskubiderik etxe ontan saítzea iñori
 debekatutzeko.
 EÉRAMUN ¿Zeé uste dezu? Nere semea ezkonduko dala
 badezpadako gizon baten alabarekin?
 INES (*Kementsu*). ¿Nere aita badezpadakoa?
 EÉRAMUN Dan bezela agertzen ez dan gizonak, ez du
 izango omen aundirik.
 INES (*Asefe*). Zer-esanik badezu ere, nere aúfean ez,
 ta (*Aitaren antzezkiari begira*). bere aúfean
 gutxiago.
 EÉRAMUN Egia, atzean naiz aúfean. (*Ezetsiaz*), ¿Ori al-da
 zure aita? (*Antzezkiari begira*) ¡A ze!... (*Ariturik*).
 INES Ori da, bai, zuk belztu dezun nere aita maitea!
 (*Gogo-aldatuaz*).
 EÉRAMUN Ez... ez... ori ez det nik iraindu...
 INES ¡Ori da nere aita: ta zuk nere aita maite ori
 gaitzetsi dezu!
 EÉRAMUN ¡Ori zure aita!... ¡Zure aita ori!...

INES Bai: ori da nere aitaren antzezkoa.
 EĒAMUN (*Antzeskiari begira*). Ba... bai... bera da. ¿Egia al-da?

INES Izango ez daba! *Beregain*). ¿Zer gertatu ote zayo gizon oni?

EĒAMUN (*Antzeskiari begira*). Ba... ez det ezbairik. Bera da... ondo gogoratzen naiz.

INES ¿Ezagutzen zenduan, beraz?

EĒAMUN Ezagutu... nik jakin bea detana da, zure aita dan edo ez.

INES Jauna... ¿nola esan beaiko ote det ziñestarazteko?

EĒAMUN Ongi da... zuk ez dezu ulertzen zer gatik dan.

INES Ez da ezerf.

EĒAMUN ¿Zure aita bizi izan al-da inoiz Buenos-Airesen?

INES Bai Jauna.

EĒAMUN Bera da.

INES Arifuta naukazu.

EĒAMUN Ulerfuko duzu garaiz... Etxera noa; bañan bereala biurfuko naiz. ¿Emen arkituko al-zaitut?

INES Bai jauna: ementxen egoteko asmoa det.

EĒAMUN Ongi da. Gero arte bada. (*Joaten da antzeskiari begiraturaz*).

INES Nai dezun arte.

ZORTZIGAREN AGEĒALDIA

Ines: gero Joxepa.

INES (*Bekarik*). ¿Zer du bañan gizon ofek?... ¡Ze asmo arfu ote du!... ¡Bera dala ta bera dala!... Nere aitaren antzeskiak zer bait gogorazi dio noski. Bañan ¿zer izan liteke?... Ezin det ulertu... ¡Buenos Airesen ezagutu ote zuen!... Beriz etortzekotan gelditu da...! Zer ote dakar?

JOXEPA (*Saifurik*). Oraingoan ba-dakat.

INES ¿Zer?

JOXEPA Dirua ba. Kendu diot Andre Kontxesiri eman bea zuena.

INES Ez nintzan gogoratzen ere.
 JOXEPA ¡Ederki dago!... Oldozkoř arkitzen zaitut.
 INES Bai, Joxepa. Geřtakizun guziak zu atera ondoren izaten dira.
 JOXEPA ¿Zer bait al-degu orain ere?
 INES Arıtuta nago.
 JOXEPA ¿Zer dezu ba?
 INES Ixidoř'en aita izan da emen.
 JOXEPA ¡¡E!!
 INES Bai.
 JOXEPA ¿Ta ze asmo ekaři du ba?
 INES Ez dakit zer esan ere. Guztizko asare etoři da: bařan gero... nik ez dakit zer geřtatu zayon... Nere aitaren antzekia ikusteaz batean aseřeari utzi dio... ta galdera batzuek egin ondoren, etxera joan da, beriz bereala etořtzeko ustez.
 JOXEPA ¿Bereala etořtzeko?
 INES Bai; onela esan dit.
 JOXEPA ¡Zer ote darabiř ba!
 INES Ez dakit ze asmo izango duen.
 JOXEPA Arıtzekoa da!... Arek, antzekia ikusiz ezagutu egingo zuen noski zure aita; eta damutu egingo zitzaion berataz gaizki esana.
 INES ...Baliteke (*Deya atean*).
 JOXEPA Bera ote da?
 INES Auřera.

BEDERATZIGAREN AGEŘALDIA

Ines, Joxepa ta Eřamun: gero Apaiza ta Ixidoř.

EŘAMUN (*Arřegi-alaiaz*). ¡Arıtuta arkituko zerate noski!
 INES Egia esateko... bai jauna.
 EŘAMUN Bai, sinisten det. (*Ateratzen du sakelatik ingurazti edo kuaderno bat: begiratzen dio; gero ořman esegita dagon antzezkiari ta ořela, antzezki ta kuadernoari txandaka bein edo geyagotan begiratzen die. Bitartean esan leikez, antzezkiari egokitzen zaikan itz batzuek... bizařduna, arřegi-zabala, begi urđiřak, edo... itz bakoitzean antzezkiari begiratuaz. Ondoren esango, du beregain*). Bera da. Biak bat dira. (*Gero Ines'i*). Zuk diozunez, au, da...

INES ¡Nere aita!

EĒAMUN Ongi da: orain ez det ezbairik.

INES ¡Baña, jauna!...

JOXEPA (Ze ote da au).

EĒAMUN Bereala uleřtuko dezu guzia. ¿Noiz etoři zan zure aita ¿Buenos-Airestik?

INES Ba... izango dira, amabi urte inguru.

EĒAMUN Bai: bete-betea. Orain ulertzen det: zure aita neri on-egin ondoren aterako zan Buenos-Airestik: eta ořegatik ez nuen iñon ařkitzen.

INES Baliteke.

EĒAMUN Bai, ořelaxe izan beař!

APAIZA (*Sařtuz*). ¿Bada baimenik?

INES Auřera.

APAIZA ¡Kaixo Ariaga'tař jauna! ¿Zu ere emen?

EĒAMUN Bai jauna: nere beařkun bat betetzera etoři naiz.

APAIZA Onuragařia bada, etzayo gaizki etořiko Ines'i.

EĒAMUN Bere aitaren nere aldezko on-egite bat ořdaintzera.

APAIZA ¡Zorionak, Ines!

INES ¡..... !

EĒAMUN Ez daki oraindikan zeř dan: Ta nik ere ez nola... uste gabe... jaři naizen bide ontan. Orain jakingo dezute guzia. Ines: ¿aberatsa al-zan zure aita?

INES Bai jauna: oso aberatsa, Buenos-Airestik etoři zanean: baňan, ezeř utzi gabe iř zan.

EĒAMUN (*İři-pařez*). Beraz; ¿etzuen utzi ezeřtxo ere zuretzat?

INES Ez jauna.

EĒAMUN Ez da ori egia.

INES ¡Izango ez da ba, Jauna!. Ezertxo ere ez.

EĒAMUN Esan det, ez dala egia: eta orain sinestaraziko dizutet. Orain amabi-amairu urte ařkitzen nintzan ni Buenos-Airesen: banuen diru puxka bat: baňan, lan gutxiago eginda geiago irabazteko ustez (*alpeř askori geřtatzen zaiena*) jokoari eman nion; ta batean pelota-lekuan, bestean zaldi-lasteřketan, ta azkenez jai-etxetako moskil-tokietan guzia jokaturik gelditu nintzan muřiztuta, ezeřtxo gabe. Txoraturik, eroturik, nere zoritzařa ikusiz, ez nekian zer-egin, ta..... egingo nuen gizatzařkeriaren bat, betiko galduz... baňan, eskeřak gizon maitekoř ta biotz-aundidun bati: Jaun ořek, nitzaz

kupiturik, esan zidan: ¿Zertara zoaz? ¡Gizonak ez du atzeratu bea, ergel ta makal diranak egiten dute ori! Suspeitu eta eman arpegiya zorigaitzari: Jañaitu lanean bulaitsu, ta eman zizkidan bosteun laurleko esanez: «Onekin zerbait egiten badezu, tori».

APAIZA
ERAMUN

¡Egipen goralgafia!
Batez ere. arek bezela egin ezkeru, bere izenik eman gabe.

APAIZA
ERAMUN

Ta ez al-zenduan ezagutzen?
Ez jauna: ta galdetu nion noñ zan, bada jakin nai nukeala noizbaitean ordaintzeko zoria izaten banuan ere; bañan alpeñik. Bakañ-bakarik esan zidan: «Utzi pelota-leku ta beste jai-etxetako joko moskile guziei, ta jañaitu lanari.»

APAIZA

¡Orek bai bete zuela ondo aintzinako esakuna: «Egizu on, ez jakin añen non.»

INES
ERAMUN

(Biotzez). ¿Ta nere aita ote zan jaun ori?
Esango dizut. Uñengoan ezagututzeko ere, begiratu nion ondo arpegira; bañan, nik ez det geyago iñoiz ikusi jaun ori: Noski, alde egingo zuen andik.

INES
ERAMUN

Amabi urte igaro dira,
Bai: ala esan dezu len. Nik ez nuan nai ordaindu gabe gelditzerik: Beraz, bide-onean jañirik, bosteun laurleko ayek ondatu baño len arkitu nintzan dirua poliki irabazteko bidean. Europako guda aseñea asi ondoren etoñi nintzan Amerikatik Biñbora; ez nuen entzuten beste izketarik, *nabierak* gora ta *nabierak* bera baizik; ta ausañtu nintzan ni ere irabazpide oyetan dirua jañtzera, ta erosi nuen itxas-ontzi bat eta Buenos-Airesko nere ongilea noizbait ageñtzen bazan ere, jañi nituen bere izenean amañ garazki (1).

(1) Acciones

APAIZA ¡Ori da gizonaren zintzotasun ta gizalege egiazkoa!

IXIDOR (*Bilduñez sartuz*)... Onera etořtzeko esan didate...

EĒAMUN Bai; nik agindu diat. Atoř auřera. (*Auřerätzen da Ixidor zer geřtatzen ote dan*). Garazki oyek asko eman dute, eta beren gora-bera guziak eřolda-idazti baten arkitzen dira. Ona emen. (*Ixidor'i galdetuaz*). ¿Ze idazki dek au?

IXIDOR Ongilearen eřolda (*kuenta*).

EĒAMUN Beronek esango dizute zer arkitzen dan idazki ontan. (*Ematen dio Ixidor'i*). ¿Zer jařtzen dik lenengo ořian.

IXIDOR (*Irakufiaz*). Nere ongilearen eřolda.

EĒAMUN Ea zenbateraño eldu dan?

IXIDOR (*Azken-aldeko ořian irakufiz*). Guztiz... Beřeun ta ogei ta bost mila laurleko.

EĒAMUN Ba... ongile ori... (*Ines'en aitaren antzezkoa ikurřtatuaz*). Jaun ori da.

INES ¿Benetan? (*Guziak ařiturik, batez ere Ixidor*).

EĒAMUN Bai; ta zu, bere alaba zeran ezkeru, zureak dira diru guzi oyek.

INES Ezin liteke jauna... ez...

IXIDOR ¡Bařan... zer da au!

APAIZA (*Ines'i*). Eřamun jaunak esan duen bezela izan ezkeru, zureak izan beař.

EĒAMUN (*Eřolda idaztia apaizari erakutsiz*). Ořa oř. (*Ařtzen du apaizak idaztia eta egongo da ikuskatzen*).

JOXEPA Bai Ines.

IXIDOR (*Aitari*). Beraz Ines'en aita izan da gure ongilea?

EĒAMUN Bai; ta diru oyek ez dute beste jaberik bere alaba baizik.

APAIZA (*Idazkia Eřamuni emanaz*). Oso edeřki ta garbi dago. Ondo erakutsi dezu ongilearen ganako maitasuna. (*Ines'i*). Ta zorionak zuri, Ines Jaungoikoak ordaintzen dizkitzulako on-egite guziak.

EĒRAMUN (*Ines'i idazkia eskainiz*). Tori.
INES Ez naiz ausartzen.
EĒRAMUN (*Puxka batean oldozkoř bezela egonda, Ixidoř'i*
 eskeiniaz)... Ařtzak bada ik.
IXIDORĀ ĩNik!
EĒRAMUN Ines'en ezkontsaritzat nai badek...
IXIDORĀ (*Pozez ařtuta*). ĩE!! (*Ines'ek ere ageřtuko du bere*
 pozezko ařimena).
APAIZA (*Eřamun'ĭ*). Ederki asmatu dezu.
EĒRAMUN Biok ontzat ařtzen badute...!
IXIDORĀ (*Ines'i pozez*). ĩZeř deizkiozu, Ines?

INES Nere alde... poz-pozik!
IXIDORĀ (*Eskua emanez*). Biotzez eskařtzen zaitut!
INES Eskeřak... Jaungoikoari!
APAIZA Berak onetsi zaitzatela!

AZKENA

Nihilĭ obstat
Dř. Petrus de Menchaca
Censorĭ